

## AMA LURRAREN DEFENTSAN

Ordizia (2006.6.20)

Estatuaren sorrera edozein zuzenbidetatik at kokatu behar da. Are gehiago, estatu bera zuzenbidearen fundamentuan bilakatuz, estatuaren borondatetik beratik eratortzen da. Estatuak zuzenbidea bere era osatzen du, alegia. Estatu ezberdinek beste estatu subirano berri bat, nazio arteko multzoan, eskubide berdinenekin, euren kide eran aitortzeak ez du esan nahi, estatu berriaren sorrerarekin bat etorri zirenik. Nazio arteko zuzenbideak estatu berriaren existentzia, behin sortuz gero, ezin du uka. Beraz, estatuaren sorrerako ez dago ez legerik, ez araurik, ezta ere inoren baimenik behar. Bai, ordea, behar haineko indarra, beste estatuen artean kokatu ahal izateko.

Estatuak ez du inolaz ere zuzenbide- neutroaren izaera hartzen. Botere politikoa erakundetuz, eta legeak eginez, hots, zuzenbide bihurtuz baino ez du bere izaera mantentzen. Herriaren boterea eta indarra, berriz, alde batetik, estatuaren benetako eta berehalako euskarria da, eta bestetik, zuzenean estatuaren aurka jartzen dena. Estatuak erabiltzen duen indarra, hain zuzen, neurri handi batean herritik dator kio edota herriak uzten dio. Estatu eta herria, aldi berean, eta halabeharrez, aurkakoak eta osagarriak ditugu.

Orokorrean, metropoliak, inperio pean duen herriari, aginduak eta legeak ematen dizkion neurrian, beregan eragiten du, eta horrek herria aurka jartzen du. Inperialismoak zergak ezarri, eta behar izanez gero, ez bakarrik soldaduzka, inperioko lurraldearen defentsan bizitza galtzea ere eskatuko du. Hori, hain zuzen, Konstituzio inperialistan oinarrituz, burutu ahal izango dute. Hori dela eta, indarra Konstituzioaren euskarria izateaz gain, bere babesle leiala ere bihurtuko da. Ondorioz, inperialismoan sostengatutako injustizia bultzatuko du. Beraz, inperialismoaren konkista eta indartsuaren legetik eratorritako indar morala zuzenbidea ezartzeko printzipio bakarra bilakatuko da.

Soziologiak inperio eta, oro har, estatuaren sorrera herri bizitzak duen potentzi handiko indarraren garapenetik bezala azaltzen du. Guk, ordea, uste dugu inperioaren kasua, behintzat, indarraren erabilera ez egokiagatik sortu izan dela. Izan ere, inperioa epe luzean mantentzeak metropoliko indar galera izugarria baitakar, eta zenbait kasutan bere desagerpena eraman du. Estatuaren kasuan, berriz, indar zapaltzailea izanik ere, aldi berean, herriaren babesle eta bultzatzailea ere bada. Inperialismoak, aitzitik, erasotzaile eta herri zapalduaren garapenari trabak jartzen dizkio. Herria eta bere estatuaren artean aurkako indar erlazio dialektikoak, ez antagonikoak, ematen dira. Inperialismoarekiko harremana, berriz, antagonikoa da, eta irtenbidetzat bietako baten heriotza baino ez du onartzen, hau da, ez dago erdi bideko aukerarik. Inperialistak ez diren estatu nazionalak, aldiz, ekonomia babesteko kezka izaten dute, ekonomiaren egoerak beraiengan eragiten baitute. Adibidez, zergen kopurua eta aduanetako diru-sartzeak euren estatuko altxorrean eragin zuzena dutenez interesatua daude. Kulturean, komunikabideetan, hirigintzako planifikazioetan... ere antzeko ardura hartzen dute.

ljiroak ez dute inoiz estatu bat osatu, juduei mendeetan falta izan zaie. Beste herri asko ere, talde minoria osatuz, berea ez den beste lurraldeetan edo konkistatutako bere lurraldean bizi dira. Gure herriak, berriz, estatua mendeetan izan dugu. Inperialismori aurre egiteko eratu genuen; baina, azkenean, espainiar eta frantziar inperioek suntsitu ziguten gure Nafarroako estatua. Oraindik, zentzu berdina ez badu ere, gure estatuko lurralde horren zenbait lurzatiei jabetza, era pribatuan, eduki ditzakegu. Lurraldetasun horrek, ordea, publiko izaera ez duenez, estatuaren lurraldea berreskuratzeko ez digu balioko. Estatuaren izaera publikoak bere lurraldean, egoerak horrela eskatuz gero, nagusitasun osoa hartzen du. Horretarako, gure lurralde eta herriaren arteko sintesia burutzea beharrezkoa egiten zaigu. Lurraldea edo espazioa ezinbesteko elementua suertatzen zaigu estatua eratzean; eta lurralde eza denboraldi eta behin- behineko egoera batean, bakarrik, existitu daiteke.

Lurralde batek denbora luzean estatuan eraikirik badarama, bertan bizitzeko prestatzen du bere habitata: herri eta hiriguneen antolaketa, komunikabideak, laborantza eta abar, eta inguruko estatuak duten habitatik zeharo ezberdinduko da, nahiz eta barne estatuko ingurune naturala ezberdina izan. Paisaia, hain zuzen, estatuaren eskua ere ikusten da. Herri zapalduetan, nortasunean eraginez, inperialistak paisaia desitxuratzera eramaten dute. Poliki- poliki eta etenik gabe konkistatu duten lurraldean inperialismoaren ezaugarriak ezartzen dituzte. Gure lurraldeak era honetako eraso izugarriak jasan izan ditu. Espainiar eta frantziar ereduak, alegia, non nahi ezarri dizkigute.

Laburtuz, gaur egun estatua oso kritikagarria egiten zaigu, eta arrazoiak bat baino gehiago daude, noski. Gure herriak, ordea, estatua berreskuratu behar du herria izaten jarraitu nahi badu. Herriak eta are gutxiago estatuak ez dute euren estatuen desagerpena nahi. Herriek behar dute estatua bere iraupenerako, eta estatuak, hein batean ente edo izate autonomo direnez, ez daude euren buruen bukaeran interesatuak. Ez dugu ahaztu behar Lurraldea, gure Ama- Lurra, elementu garrantzitsua dela estatuaren ideia garatzeko. Gure mapak garbi azaldu behar dute zein den gure lurraldea, alegia.